Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abuztuaren 22a, astelehena — 159 — Lunes, a 22 de agosto de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gordailua eta museoak zerbitzuak kudeatzen dituen bekak emateko oinarri arautzaileak.*

Diputatuen Kontseiluak, 2022ko uztailaren 19an egindako batzarraldian, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

«Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuari dagozkion gastu kredituen artean, aurrekontu partida batzuk aurreikusten dira Gipuzkoako gazteen prestakuntza espezializatua osatzea helburu duten bekak eta laguntzak emateko hainbat gaietan.

Erabaki honen bidez Gordailua eta museoak Zerbitzuak kudeatzen dituen ondorengo bekak emateko oinarri orokorrak eta berariazkoak onartzen dira:

1. Gordailuan etnografia alorrean formazio praktikak egiteko beka.

2. Gordailuko zaharberritze guneetan artea eta etnografia kontserbatzeko eta zaharberritzeko praktikak egiteko beka.

3. Gordailuko zaharberritze guneetan arkeologia eta paleontologia kontserbatzeko eta zaharberritzeko praktikak egiteko beka.

1. eta 2. bekak Diputatuen Kontseiluak onartutako 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (DLPE) barruan daude.

3. beka ez dago sartuta 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE). Beraz, ezarri aurretik, sartu egin behar da, planaren 3.1 apartatuan aurreikusi bezala.

Beken eta laguntzen programa hau ez da estatuko laguntza bat, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan jasotako terminoetan. Izan ere, onuradunak ez dira jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten enpresak; beraz, beka eta laguntza horiek salbuetsita daude Funtzionamendu Itun horren 108.3 artikuluan aurreikusten den jakinarazpen prozeduratik.

Horiek horrela, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Gordailuko zaharberritze guneetan arkeologia eta paleontologia kontserbatzeko eta zaharberritzeko praktikak egiteko bekak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Bases reguladoras para la concesión de las becas gestionadas por el servicio de Gordailua y museos del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 19 de julio de 2022, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

«Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, contemplan entre los créditos de gasto correspondientes al Departamento Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, partidas presupuestarias destinadas a la concesión de becas y ayudas destinadas a completar la formación especializada de la juventud guipuzcoana en distintas materias.

Por el presente acuerdo se aprueban las bases generales y específicas para la concesión de las siguientes becas gestionadas por el Servicio de Gordailua y museos:

1. Beca para la realización de prácticas de formación en el ámbito etnográfico en Gordailua.

2. Beca para la realización de prácticas de conservación y restauración de arte y etnografía en los espacios de restauración de Gordailua.

3. Beca para la realización de prácticas de conservación y restauración en arqueología y paleontología en los espacios de restauración de Gordailua.

Las becas 1 y 2 están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral.

La beca 3 no se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES) Por tanto, previamente a su establecimiento y en aplicación de la previsión contenida en el apartado 3.1 del PES, procede su inclusión.

Este programa de becas y ayudas no constituye una ayuda estatal en los términos del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que sus beneficiarios no son empresas que desempeñen actividades económicas; en consecuencia, estas becas y ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación Juventud y Deportes, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Incluir las becas para la realización de prácticas de conservación y restauración en arqueología y paleontología en los espacios de restauración de Gordailua en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-05395

*Bigarren.* Jarraian aipatzen diren beken oinarri arautzaile orokorrak, hala nola, bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoak, onestea:

1. Gordailuan etnografia alorrean formazio praktikak egiteko beka.

2. Gordailuko zaharberritze guneetan artea eta etnografia kontserbatzeko eta zaharberritzeko praktikak egiteko beka.

3. Gordailuko zaharberritze guneetan arkeologia eta paleontologia kontserbatzeko eta zaharberritzeko praktikak egiteko beka.

Aipatutako oinarri arautzaileak erabaki honen eranskin gisa jaso dira.

*Hirugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean sortuko dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita BI hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Donostia, 2022ko abuztuaren 12a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (5395)

I. ERANSKINA

*Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gordailua eta Museoak Zerbitzuak kudeatzen dituen programen kontura beken emakida arautzen duten oinarri arautzaileak.*

OINARRI OROKORRAK

*1. Bekak eskatzeko baldintzak.*

1. Beka hauen onuradun izaera izango du beken oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoak edo/eta dirulaguntza jasotzea zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, beka lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza espezifikoak bete beharko ditu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren beken onuradun ezin dira izan martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean diren pertsonak. Ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak ezarritakoari jarraikiz, sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenak ere.

3. Hauetako bekaren baten onuradun izan direnek ezin izango dira beka hauetara berriz aurkeztu, nahiz eta aurrez lortutako bekari uko egin.

*2. Eskaerak aurkezteko era eta epea.*

1. Bekak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

2. Eskaerak, Kultura Zuzendaritza Nagusiak emandako formularioaren arabera, eta ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztea hobetsiko da, ahal dela eta dituzten

*Segundo.* Aprobar las bases reguladoras generales de las siguientes becas, así como las específicas correspondientes a cada una de ellas:

1. Beca para la realización de prácticas de formación en el ámbito etnográfico en Gordailua.

2. Beca para la realización de prácticas de conservación y restauración de arte y etnografía en los espacios de restauración de Gordailua.

3. Beca para la realización de prácticas de conservación y restauración en arqueología y paleontología en los espacios de restauración de Gordailua.

Dichas bases reguladoras se adjuntan como anexo al presente acuerdo.

*Tercero.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

San Sebastián, a 12 de agosto de 2022.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (5395)

ANEXO I

*Bases reguladoras de la concesión de becas con cargo a los programas gestionados por el Servicio de Gordailua y Museos del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.*

BASES GENERALES

*1. Requisitos para solicitar las becas.*

1. Tendrá la consideración de beneficiaria de estas becas la persona física que haya de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión y que, además, reúna los requisitos específicos establecidos para cada beca en su respectivo anexo.

2. No podrán obtener la condición de beneficiaria de las becas reguladas en estas bases las personas en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni quienes se hallen incursas en prohibición legal o inhabilitación por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3. Quienes hayan sido beneficiarios de una de estas becas, no podrán presentarse de nuevo a las mismas, aunque hubieran renunciado a ella anteriormente.

*2. Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*

1. El procedimiento para la concesión de becas se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

2. Las solicitudes, según formulario que facilite la Dirección General de Cultura, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán, preferentemente y siempre

ezaugarriek bide hori ixten ez badie, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus helbidean) barrena, dirulaguntzen atarian sartu eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko datu-orria erabiliz.

3. Eskatzaileak ez badu sinadura elektronikorik, pasahitzik edo elektronikoki eskaera aurkezteko baliagarri den nortasuna egiaztatzeko beste edozein bitartekorik, aplikazio informatikoaren bidez betetako eskaera orria aurkeztu beharko du paperean sinatuta.

4. Halaber, badago aukera eskaerak eta dokumentazioa, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuari zuzenduta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren Erregistro Orokorrean (Okendo kalea 20, 20004 Donostia) edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (Gipuzkoa plaza z/k, behe solairua, 20004 Donostia) aurkezteko.

5. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera formulario normalizatuak egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) eskuragarri egongo dira.

6. Eskaera formulario normalizatuekin batera, deialdian adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek.

7. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, eskatzaileari hamar laneguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe hori amaituta horrela egiten ez badu, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan jasotakoaren arabera emandako ebazpenaren bitartez.

8. Eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

*3. Emateko prozedura.*

Beka norgehiagoka erregimenean emango da, eta, beraz, eskabide bakarra hautatuko da beka mota bakoitzeko, kasu bakoitzean ezarritako irizpideen arabera, eta balorazio irizpideetan eman daitezkeen puntuen erdia gutxienez lortzen bada.

*4. Beken zenbatekoa.*

Beka bakoitzaren gehienezko kopurua beka bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten dena izango da.

*5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.*

1. Dirulaguntzak ez dira estatu laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, onuradunak ez dira jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten enpresak. Horrenbestez, aipatu Itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita daude laguntza hauek.

2. Emandako dirulaguntzak, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari lotuta egongo dira.

3. Indarrean dagoen araudiaren arabaera, Gipuzkoako Foru Aldundiak alta emango die Gizarte Segurantzan bekadun gisa hautatzen diren pertsonei.

*6. Izapidea.*

1. Beka hauek emateko prozedura bideratzea Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gordailua eta Museoak zerbitzuko pertsonal teknikoari egokitzen zaio.

2. Txosten teknikoa egindakoan, ebazpen proposamena ebaluazio batzorde batek egingo du. Batzorde horren osaketa dagokion oinarri espezifikoetan zehaztuko da. Ebaluazio batzordeak ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta eskumena duen organo aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

que su naturaleza lo permita, vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos.

3. En caso de carecer de firma electrónica, clave operativa o de algún otro medio de acreditación de la identidad válido para la presentación electrónica, la persona que efectúe su solicitud a través de la aplicación informática deberá presentar firmado el impreso en papel de la solicitud.

4. También podrán dirigirse al Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes y presentarse en el Registro General del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes (Okendo kalea 20, 20004 San Sebastián) y en el Registro Central de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza Gipuzkoa s/n, planta baja, 20004 San Sebastián.

5. La información de cada convocatoria y los formularios normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica https://egoitza.gipuzkoa.eus.

6. Junto con los formularios normalizados de solicitud, las personas solicitantes deberán aportar la documentación que se indique en la convocatoria.

7. Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a las personas solicitantes un plazo de diez días hábiles para subsanar los defectos detectados, transcurrido el cual sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidas de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

8. Los plazos de presentación de solicitudes se concretarán en la convocatoria anual.

*3. Procedimiento de concesión.*

La concesión de la beca se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan solo se seleccionará una única solicitud, por cada uno de los tipos de beca, conforme a los criterios fijados en cada caso, y siempre que obtenga al menos la mitad de los puntos que se puedan otorgar en los criterios de valoración.

*4. Cuantía de las becas.*

La cuantía máxima de cada beca será la indicada en las bases específicas correspondientes a cada una de ellas.

*5. Financiación de las actividades subvencionadas.*

1. Las ayudas no constituyen ayuda estatal en los términos del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que sus beneficiarios no son empresas que desempeñen actividades económicas; en consecuencia, estas ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

2. Las ayudas concedidas están sujetas al Impuesto de la renta de las personas físicas.

3. De acuerdo a la normativa en vigor, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá a dar de alta en la Seguridad Social a las personas que sean seleccionadas como becarias.

*6. Instrucción.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de las becas objeto de las presentes bases generales corresponderá al personal técnico del Servicio de Gordailua y Museos del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.

2. Una vez realizado el informe técnico, la propuesta de resolución se efectuará por una comisión evaluadora cuya composición se determinará en las correspondientes bases específicas. La comisión evaluadora formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será elevada al órgano competente para resolver.

EK\CV GAO-I-2022-05395

*7. Ebazpena.*

1. Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak ebatziko du deialdia, foru agindu bidez.

2. Ebazpena arrazoituko da beka lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutakoaren arabera: hau da, bertan ezarritako irizpide objektiboen arabera.

3. Beka emateko ebazpenak espresuki jaso beharko ditu honako hauek: xedea, hautatutako pertsona, zenbatekoa, ordainketa erak eta epeak, eta dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak.

4. Prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da, kasu bakoitzean, eskaerak aurkezteko epea hasten denetik aurrera.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren bekak emateko jardunbidearen barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 25.1.a.) artikuluan xedatutakoaren arabera.

*8. Onuradunaren betebeharrak.*

1. Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta hori garatzeko erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoak) ezarritako betekizunez gain, oinarri orokor hauetan eta beken lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan aurreikusitakoak bete beharko dituzte onuradunek.

2. Bereziki, dirulaguntzaren xedeko jarduerei buruzko publizitatean, nagusiki euskaraz egingo dena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren lankidetza adieraziko da.

3. Diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko dokumentazioan eta materialetan, hizkeraren erabilera ez-sexista egin beharko dute, emakumea diskriminatzen duten irudiak saihestu eta berdintasunaren, aniztasunaren, askotariko eginkizunen eta erantzunkidetasunaren irudia sustatu.

4. Laguntza hauen onuradunek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankide izan beharko dute beka jasotzen arrazoi diren esperientziak zabaltzeko ekintzetan.

*9. Bekak ordaintzea.*

Bekaren zenbatekoa hilez hil zatika ordainduko da, beka-aldiak irauten duen bitartean, bekaren zenbateko osoa zati bekak irauten duen hileko proportzioan egingo da, eta dagozkion atxikipenak egingo dira.

Bermea eratzea eskatzen ez duen ordainketa aurreratuen aurreikuspena behar bezala justifikatuta dago garatu beharreko jardueren ezaugarriak kontuan hartuta. Pertsona fisikoek prestakuntza, kontserbazio eta zaharberritze praktikak egin behar dituzte, eta praktika horiek 8 hilabeteko iraupena dute eta egunero 8:30etik 14:30era (astelehenetik ostiralera) Gordailura joan behar duten gazteei zuzenduta daude. Beraz, aurreikusitako hileroko ordainketarik gabe, zaila izango litzateke onuradunak praktika horiek egin ahal izatea.

*10. Beken justifikazioa.*

1. Beka emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez zuritu beharko da, laguntza edo beka mota bakoitzari dagokion eranskinean adierazten den eran eta epeetan.

2. Beka eman duen organoak egiaztatuko du bekaren justifikazioa egokia izan ote den, eta beka emateko oinarri izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

3. Onuradunak Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko du organo emaileak.

*7. Resolución.*

1. El diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes resolverá la concesión mediante orden foral.

2. La resolución se motivará de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras específicas de cada beca, con referencia a los criterios objetivos de concesión.

3. En la resolución de concesión de la beca se deberá hacer constar expresamente el objeto, la persona seleccionada, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras específicas de cada beca.

4. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará, en cada caso, a partir del inicio del plazo de presentación de solicitudes.

5. En relación con el procedimiento de concesión de las becas objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 25.1.a.) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*8. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

1. Son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las señaladas en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril), las que se determinan en las presentes bases reguladoras y en las específicas de cada línea de becas recogidas en los anexos.

2. En particular, en la publicidad que se realice, prioritariamente en euskera, sobre las actividades becadas, se hará constar la colaboración del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. Deberán garantizar un uso no sexista del lenguaje en toda la documentación y materiales relacionados con las actividades y programas subvencionados, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y fomentar una imagen con valores de igualdad, diversidad, pluralidad de roles y corresponsabilidad.

4. Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán colaborar con la Diputación Foral de Gipuzkoa en aquellas acciones de difusión o divulgación de las experiencias para las cuales se hayan otorgado las becas.

*9. Abono de las becas.*

El importe de la beca se irá abonando mensualmente, mientras dure el periodo becado, dividiendo el importe total entre las mensualidades de duración de la beca que correspondan y practicando las retenciones que procedan.

La previsión de pagos anticipados sin la exigencia de la constitución de garantía está debidamente justificada atendiendo a la actividad a desarrollar, que es la realización de prácticas de formación o conservación y restauración por personas físicas, que tienen una duración de 8 meses y están destinadas a jóvenes que deben asistir diariamente a Gordailua dentro del horario de 8:30-14:30 h (de lunes a viernes), por lo que, sin los pagos mensuales previstos, difícilmente pudiera resultar viable para la persona beneficiaria realizar estas prácticas.

*10. Justificación de las becas.*

1. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la beca se documentará de la manera y en el plazo que se indica en cada caso en el anexo correspondiente.

2. El órgano concedente comprobará la adecuada justificación de la beca, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la misma.

3. El órgano concedente comprobará que el beneficiario se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2022-05395

4. Pertsona eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

*11. Jasotako diru kopuruak itzultzea.*

Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta beka ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluaren 1. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan.

*12. Dirua itzultzera behartuak.*

Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuru horri dagozkion berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

*13. Araubide juridikoa.*

1. Oinarri orokor hauetan eta berariazkoetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek aplikatuko dira: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko Erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuaz onartutakoa.

2. Beken kontrol finantzarioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak VII. tituluko bosgarren kapituluan dirulaguntzen gain ezartzen duenaren arabera egingo da.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

*1. Gordailuan etnografia esparruan, formazio praktikak egiteko beka bat emateko oinarriak.*

*1. Bekaren xedearen definizioa.*

1. Berariazko oinarri berezi hauen xedea da, etnografia esparruan, Gordailuan formazio praktikak egiteko beka bat esleitzeko araudia ezartzea.

2. Formazio praktikak bereziki Gordailuan, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroan, dauden bildumen dokumentazioaren esparruan garatuko dira.

3. Hori dela eta, bekaren onuradunak bere prestakuntza Gordailuako instalazioetan egingo du. Horretarako, tutoretza bat izango du, Gordailuako langileek bereziki diseinatua; tutoretzaren geroko garapena bertako langileek berek gauzatuko dute.

4. Beka jasotzen duen aldian, onuradunak ikasketa teoriko eta praktikoak egingo ditu, batik bat bilduma etnografikoen piezen dokumentazioari buruzkoak (erregistroa, inbentarioa, katalogazioa...) Gordailuarekin hitzartutako erreferentziazko erakunde edo zentro batera joanez; erreferentziazko zentro hori Espainiako estatuan egongo da. Orobat, aurreikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko museo eta zentro batzuetara joan-etorriak egitea.

*2. Beka jasotzeko pertsona onuradunek bete beharreko betekizunak.*

1. Beka hau eskuratu ahal izango dute honako gaietan prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten goi mailako unibertsitate titulua dutenek: Gizarte eta Kultur Antropologia, Historia edo Kultur Ondarea, deialdiaren xedearekin bat eginez.

2. Baldintza bat da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea. Euskarari dagokionez, 3 H.E. maila egiaztatu beharko da.

3. Aurrekoaz gain, ezinbesteko baldintza izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri bateko administrazio auzotarra izan dela egiaztatzea bost urtez gutxienez azken hamar urteetan.

4. En el caso de que la persona solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

*11. Reintegro de las cantidades percibidas.*

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la beca hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en los apartados 1 y 3 del artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*12. Obligación de reintegro.*

Las personas beneficiarias, en los casos contemplados en la base anterior, deberán reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas más los correspondientes intereses de demora. Esta obligación será independiente de las sanciones que, en su caso, resulten exigibles.

*13. Régimen jurídico.*

1. demás de lo previsto en las presentes bases generales y en las específicas, se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento, aprobado por el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

2. El procedimiento de control financiero de las becas será el establecido para las subvenciones en el capítulo quinto del título VII de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

BASES ESPECÍFICAS

*1. Bases para la concesión de una beca para realizar prácticas de formación en el ámbito etnográfico en Gordailua.*

*1. Definición del objeto de la beca.*

1. El objeto de las presentes bases específicas es regular la concesión de una beca para realizar prácticas de formación en el ámbito etnográfico en Gordailua.

2. Las prácticas formativas se desarrollarán especialmente en el campo de la documentación de colecciones ubicadas en Gordailua, Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa (Irun).

3. A tal efecto, la persona beneficiaria de la beca desarrollará su formación en las instalaciones de Gordailua, para lo que contará con una tutoría especialmente diseñada para ello por el propio personal del Centro, que, que posteriormente efectuará el trabajo de tutoría.

4. Durante el periodo de disfrute de la misma, la persona beneficiaria realizará estudios teóricos y prácticos, especialmente sobre documentación (registro, inventario, catalogación...) de piezas de las colecciones etnográficas, asistiendo a una institución o centro de referencia concertado con Gordailua; dicho centro de referencia está localizado en el Estado español. Así mismo, se contempla la posibilidad de desplazamientos a museos y centros de la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra e Iparralde.

*2. Requisitos que deberán reunir las personas beneficiaria para la obtención de la beca.*

1. Podrán obtener la presente beca las personas que estén en posesión de un título universitario superior, que acredite formación académica en cualquiera de las siguientes materias: Antropología Social y Cultural, Historia o Patrimonio Cultural relacionado con el objeto de la convocatoria.

2. Será requisito conocer los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, teniendo que acreditar para el caso del euskera un nivel 3 P.L.

3. Además de lo anterior, será requisito indispensable acreditar la vecindad administrativa en cualquiera de los municipios que integran el Territorio Histórico de Gipuzkoa por plazo mínimo de cinco años, dentro de los diez últimos años.

EK\CV GAO-I-2022-05395

4. Beka hau bateraezina da antzeko beste beka edo laguntza batzuekin.

5. Atzerrian eskuratutako tituluak Hezkuntza gaietako eskumena duen Ministerioaren aldetik behar bezala homologatuak egon beharko dute beka lortzeko eskaera aurkezterakoan.

*3. Balioespen irizpideak eta ematea.*

1. Beka emateko, alderdi hauek balioetsiko dira:

40 punturen gainean.

a) Curriculum vitae: gehienez 25 puntu.

1) Espediente akademikoa: gehienez 15 puntu.

2) Beste prestakuntza ikastaro batzuk, argitalpenak, biltzarrak, baldin eta kultura ondarearekin zerikusia badute, deialdian eskatzen ez diren beste hizkuntza batzuk: gehienez 6 puntu.

3) Lan esperientzia, baldin eta beka honen helburuarekin, hau da, ondare etnografikoarekin zerikusia badu: gehienez 4 puntu.

b) Aurrez aurreko elkarrizketa. Gehienez 10 puntu.

1) Curriculumaren ahozko aurkezpena: lanbide esperientzia eta egindako lana, betiere etnografiako esperientzia frogatzeko: 5 puntu, gehienez.

2) Gordailua proiektuan parte hartzeko interesaren azalpena: gai zehatz baterako edo batzuetarako interesa; bilduma etnografikoaren ezagutza hobetzeko ekar dezakeen proposamen metodologikoa: 5 puntu, gehienez.

c) Eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean 31 urte beteta ez izatea edo unibertsitateko ikasketak amaitu zirenetik 5 urte baino gehiago igaro ez izana: 5 puntu.

2. Eskaerak batzorde ebaluatzaile batek aztertu eta balioetsiko ditu. Batzorde hori Gordailua eta Museoen Zerbitzuburua denak, bertako etnografiako goi teknikariak, Unibertsitateko irakasle batek eta prestigioa duten bi ikertzailek osatuko dute.

3. Deialdia hutsik deklaratu ahal izango da, inongo eskatzaileek ez badu gutxieneko puntuazioa lortzen, kasu honetan puntuazio osoaren erdia izango da lortu beharreko gutxienekoa.

*4. Kopurua.*

Bekaren kopurua ez da 10.000 euro baino gehiagokoa izango eta kopurua urteroko deialdian zehaztuko da aurrekontuaren egoeraren arabera.

*5. Iraupena.*

Beka honen iraupen osoa zortzi hilabetekoa izango da praktikaldia egiteko sartu eta hortik aurrera kontatzen hasita. Aldi horren barruan sartzen da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako erreferentzia zentroko egonaldia. Azken hori ez da izango 4 aste baino motzagoa eta sei aste baino luzeagoa.

*6. Praktikaldiaren hasiera.*

Praktikaldia lehenbailehen hasiko da, Gordailua noiz erabil daitekeen kontuan hartuta. Lehenik Gordailuaren dinamika bertatik bertara ezagutuko da, lau astez gehienez ere; geroago, kanpoko erreferentzia zentroan egingo da egonaldia, eta handik itzultzerakoan beteko da Gordailukoa.

*7. Onuradunaren betebeharrak.*

1. Bekaz baliatzen den bitartean oinarri hauetatik sortzen diren arauak hutsegin gabe betetzea.

2. Gordailuara joatea egunero 08:30-14:30 bitartean (astelehenetik ostiralera) edota Zentroko arduradunak erabakitako zentroetara joatea, eta Foru Aldundiak prestakuntza osatzeko aukeratutako erreferentzia zentrora joatea egunero. Salbuespenez ez

4. El disfrute de esta beca se considera incompatible con cualquier tipo de beca o ayuda de similares características.

5. Los títulos obtenidos en el extranjero deberán estar debidamente homologados por el Ministerio competente en materia de Educación en el momento de la presentación de las solicitudes para la obtención de esta beca.

*3. Criterios de valoración y concesión.*

1. Para la concesión de dicha beca se valorarán los siguientes aspectos:

Sobre un total de 40 puntos.

a) Curriculum vitae: máximo de 25 puntos.

1) Expediente académico: hasta un máximo de 15 puntos.

2) Otros cursos de formación, publicaciones, asistencia a congresos, siempre que estén relacionados con el ámbito del patrimonio cultural, idiomas diferentes a los exigidos en la convocatoria: hasta un máximo de 6 puntos.

3) Experiencia profesional, siempre que esté relacionada con el patrimonio etnográfico objeto de la beca: hasta un máximo de 4 puntos.

b) Entrevista presencial. Máximo 10 puntos.

1) Presentación oral del curriculum: experiencia profesional y trabajo realizado, siempre con el fin de demostrar la experiencia en etnografía: Máximo 5 puntos.

2) Explicación del interés por tomar parte en el proyecto de Gordailua: interés en uno o varios temas en concreto; propuesta metodológica que puede aportar para mejorar el conocimiento de la colección etnográfica: Máximo 5 puntos.

c) No haber cumplido los 31 años en la fecha en el que expira el plazo de solicitud o no haber trascurrido más de 5 años desde la finalización de los estudios universitarios: 5 puntos.

2. Las solicitudes serán examinadas y valoradas por una comisión evaluadora integrada por la persona que ostente la jefatura del Servicio de Gordailua y Museos, el técnico/a superior de etnografía de dicho servicio, un profesor o una profesora de Universidad y dos personas investigadoras de reconocido prestigio.

3. La convocatoria podrá declararse desierta si ninguna de las personas solicitantes alcanza la puntuación mínima que se fija en la mitad del total de la puntación.

*4. Importe.*

El importe de la beca no excederá los 10.000 euros y se especificará en la convocatoria anual en función de la disponibilidad presupuestaria.

*5. Duración.*

La duración total de la beca será de ocho meses a contar desde el momento de la incorporación para la realización de las prácticas, incluirá la estancia en el Centro de referencia concertado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, no siendo esta estancia inferior a 4 semanas o superior a seis semanas.

*6. Inicio de las prácticas.*

Las prácticas se iniciarán a la mayor brevedad teniendo en cuenta la disponibilidad de Gordailua. Primeramente se conocerá la dinámica de Gordailua, durante cuatro semanas máximo; posteriormente realizará la estancia en el centro de referencia, y a la vuelta continuará el disfrute de la beca en Gordailua.

*7. Obligaciones de la persona beneficiaria.*

1. Cumplir de forma ininterrumpida durante el disfrute de la beca las normas que resulten de los distintos apartados de estas bases.

2. Asistir diariamente a Gordailua dentro del horario de 8:30-14:30 h (de lunes a viernes) o, en su defecto, acudir a los lugares que les sean señalados por la persona responsable del Centro, y asistir de forma diaria al centro de referencia elegido por

EK\CV GAO-I-2022-05395

bertaratzea justifikatu egingo da, eta, beharrezkoa bada, neurriak hartuko dira prestakuntzaren ikuspuntutik sortu daitezkeen kalteak murrizteko.

Hori betetzen dela bermatzeko, bekadunak egindako lanaz eta asistentziaz bi ziurtagiri aurkeztuko ditu zentroko arduradunak Kultura Zuzendaritza Nagusian, bata praktikaldiaren erdialdean eta beste bat amaitutakoan.

3. Praktikaldia amaitu ondoren praktikaldiaren emaitzak nahiz bekadunaren iradokizunak jasotzen dituen amaierako memoria, euskaraz edo ele bitan aurkeztea.

4. Memoria hori formatu digitalean aurkeztu behar da eta Gordailuako web orrian argitaratuko ahal izango da; horrela, beraz, ondorio guztietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen ditu bere gain argitalpen horren eskubide guztiak.

